


Unitatearen laburpena



Hiztegia – Bidaiatu

Auto-ilara	ibilgailu asko dauden eta zirkulatu ezin den errepidearen egoera
Mapa	jarraitu beharreko bidea aurkitzen laguntzen diguten errepideen irudikapena
Bide-seinale	trafiko-arauak kolore, letra eta marrazkiekin irudikatzen dituen objektua
Ordaintoki	errepide bat erabiltzeko diru-kopuru bat ordaintzen den tokia
Atzerako ispilu	atzean duguna ikusten laguntzen digun autoaren aurreko aldean dagoen ispilu txikia
Gidatu	auto bat bideratu

Gutun bat



LABURPENA

Testuak azaltzen du Patxi Valentziara doala oportetan, hondartzara. Patxik Alaiari kontatu dio oparitu zion partxisa eramango duela, eta bisita egiteko eskatu dio.

HITZ ZAILAK

Oporrak, maletak, leher egin, kukurutxo eta terrina.

ESTRATEGIAK

Irakurketa ulertzen laguntzeko, modu aktiboan lan egingo dugu, hiru zatitan banatuta, hainbeste larritu ez daitezten.

Idea nagusiei buruz eta kontzeptuen edo hiztegiaren zalantzei buruz galdetuko diegu ikasleei.

Planak kontatzea

Plan bat etorkizunean (hurrengo egunean, hurrengo astean edo aurrerago) egin nahi dugun zerbait da.

Esamolde hauek erabiltzen ditugu:

1. Zer egingo duzu...?
2. Hau egingo dut...
3. Hau egingo dugu...

Handigarriak

Handigarriak zerbait handia dela adierazteko erabiltzen ditugu.

Auto > autotzar

Handigarriak osatzen ditugu hitzei amaiera hauek gehituta:

-tzar, -kote- handi

Galdera- eta harridura-markak

Galdera-ikurra, ?, galderak egiteko erabiltzen da.
Galdera baten amaieran erabiltzen da.

Bazatuz gurekin?

Harridura-ikurra, !, harridurazko perpausetan erabiltzen da.
Esaldiaren amaieran idazten da.

Hator hona!

Izan, ukan

Euskaraz, **izan** eta **ukan** aditzak oso garrantzitsuak dira. Hona hemen taulak:

	IZAN		UKAN sing. / plur.
Ni	naiz	Nik	dut / ditut
Zu	zara	Zuk	duzu / dituzu
Hura	da	Hark	du / ditu
Gu	gara	Guk	dugu / ditugu
Zuek	zarete	Zuek	duzue / dituzue
Haiek	dira	Haiek	dute / dituzte

Ni Laura naiz eta hamar urte ditut.

Literatura: bertsoak

Bertsolaritza abestuz, errimatuz eta neurtuz egiten den berbaldia da.

Bertsolaria jendaurrean bat-batean jarduten duen abeslaria da.

Bertsoa gai librean kanta daiteke edo gai-jartzaile batek gaia emanda bakarrik edo bi bertsolariren edo gehiagoren artean.

Postala

1. Aukeratu zure gustuko postal bat.
2. Idatzi **mezua** ezker aldean.
3. Idatzi hartzailean **izena** eta **helbidea** eskuinaldean.
4. Itsatsi **zigilua** eta bota postontzira.

